



GEHITU, Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak, bere Koordinazio Kontseiluaren hausnarketaren ostean, 2002ko zilar eta latorrizko GEHITU sariak ondorengo pertsona eta elkartei ematea erabaki du:

ZILARREZKO GEHITU SARIA EITB Euskal Irrati Telebistaren informazio zerbitzuei, beren profesionalak gure mezu eta aldarrikapenekiko azaldu duten ardura eta arretagatik. Bere erabakian, Kontseilu honek telebista bezalako komunikabide batek daukan adiera eta bere denbora eskasia baloratu ditu. Nahiz aipatu eskasia horrek eman nahi diren edukinak halabeharrez mugatu egiten dituen, beti izan dira gai interesgarria gay, lesbiana eta transexualen eskubideak EITBren informazio zerbitzuentzat, beren emanaldietan tarte garrantzitsua beteaz.

Sari hau informazioaren profesional hauei ematen zaien heinean, ez dugu aukera galdu nahi beste komunikabide batzuetan lanean diharduten orori beren GEHITUren ekimenekiko tratua ona eskertzeko, beti gurekin batera gay, lesbiana eta transexualen Berdintasun, Askatasun eta Duintasuna izanik helburu.

LATORRIZKO GEHITU SARIA artikulista y iritziemaile homofoboei, aipamen berezia emanaz Jose Ignacio Munilla apaiza eta Begoña Ameztoryri. Biak dira Homofobia beraren bi aurpegiak.

Bai (Munillaren kasuan bezala) zuzeneko erasoaren bidez, aspaldiko posizio atzerakoiak eta argumentu pseudozientifikoak erabiliaz Homosexualitatea sendatzeko asmoz, gaixotasun bat balitz bezala...

... edo bai, Ameztoryren moduan, azken finean gay, lesbiana eta transexualen ikusgarritasuna kaltetzen duen posizio itxuraz neutral eta barregarri baten bidez, horrela bizi dugun marginazio eta desberdintasuna ahantzi eta gure bazterkeriaren zaurian ozipina boteaz...

... Homofobia gure gizartean sartuta dago eta guztion eta bakoitzaren lana da honen aurka egitea. Berau salatzeke eta Giza-Eskubideeengan sinisten duten gizon-emakumeen kontzientzi suspertzeko dirau GEHITUK lanean, ez dezan inork gaur egun entzuten ditugun era honetako diskurtsurik sinetsi.

Sari hau gaizki ulertutako fribolitateen erruz beren armairu pertsonalen barruan gordeta dirauten guztiek ematen dute, oraindik aurreiritzietan oinarritutako auziak direla eta sinisterazten baizaie hautatu beharrean daudela, besteak beste, bere fede erlijioso eta pertsona bezalako duintasunaren artean, edo bere familiarekiko maitasuna, bere lana...